

# IGELDOKO ORRI INFORMATIBOA



**Kaixo herrikide!!!**

Hemen datorkigu udaberriko alea.

Azken hilabeteetan herrian eragile ezberdinek egin dituzten ekintzei, bilerei... buruzko informazioarekin gatoz.

# Lezkarri udaberria alaitzen

Joan den otsailaren 12an Belauntzako elizan Lezkarrik omenaldi-kontzertu eskaini zuen orain dela gutxi hil den Mariano Lazkano alkatearen oroimenez. Kontzertua meza eman ondoren ospatu zen eta hildakoaren familia eta herritarak egon ziren bertan.

Kontzertutik lau abesti igo dira YouTube-ra eta, interesa duzuenok, "Lezkarri" hitza bilatzailean sartu besterik ez duzue.

Normalean, San Pedrotan kontzertu bat eman ohi dute baina zuzendaria kanpoan egongo denez, maiatzean, San Isidro inguruan, kontzertu bat eskaintzeko asmoa dute, oraindik data zehatzik gabe.

Esan digutenez, Goizuetako abesbatzarekin harremanetan daude maiatzean bertan kontzertu bat egiteko; data hauetan ezinezkoa izango balitz, azarora atzeratuko lukete.

Nize Crespo, Lezkarriko zuzendariak, Getariako abesbatza ere zuzentzen du. Hori dela eta, bi abesbatzek batera kontzertu bat eskainiko dute Getarian, ekainaren 11n. Abesbatza bakoitzak bere abestiak abestuko ditu eta denek batera abesti pare bat abestuko dituzte. Kontzertu ostean, bazkaltzera gonbidatuko dituztela esan digute.



Oraingoan, eskolako zuzendaritza, guraso elkarte eta hainbat ikasle elkarrizketatu ditugu eskola txikiaren gainean aritzeko.

**Gustatuko zaizuelakoan... On egin!**

## GIRO EDERRA EMAKUME AFARIAN

Urtero bezala, emakume eguna dela eta, martxoaren 11n izan zen afaria. Aurtengoan, Calonge sagardotegian elkartu ziren Oihana Iguaran eta Amaia Agirre bertsolariekin batera. Adin ezberdinetako 64 emakume elkartu ziren. Giro ederrean, afalostean bertso-saio politaz gozatu zuten. Baserriko produktuekin osatutako hiru saski zozketatu ziren eta Amaia Agirre, Karmele Garmendia eta Laura Izagirre izan ziren zortedunak.



## MARTXAN DA PARTE HARTZE PROZESUA

Urtarrilaren 15ean egindako batzarrean aurkeztu zen Parte Hartze-prozesua eta jada bigarren zonaldean ari dira galdeketak pasatzen. Herri Kontseiluak, herritarren beharrak eta iriztiak jaso asmoz, parte hartze-prozesu bat martxan jarri du. Lehendabizi, herriko 16 urte-tik gorako pertsona guztiei galdeketak egitea dute helburu. Horretarako, herria lau zonalde-tan banatu dute eta bakoitzean hilabete pare batez ariko dira galdeketak banatu eta jasotzen. Kaxkoarekin hasi ziren (urtarrila/otsaila bitartean) eta, oro har, oso harrera ona izan dute herritarren aldetik. Orain herriaren ekialdean ari dira lanean (Leku Eder, Amezti eta Gudamendi inguruan). Hurrengoak itsas alde (maiatza/ekaina) eta Etume eta hegoaldea (uztaila/abuztua) izango dira.

# Igeldori esker, ametsak egia bihurtzen



Pasa den otsailaren 12an Bernart Etxepare lizeolari laguntzeko erosi ziren sagarrondoak banatu ziren Igeldon. Sagarrondo horiek erosituta, Etxepare lizeoak egin nahi duen barnetegi berriaren proiektua gauzatzeko sosak bildu dira ([www.betxepare.eus](http://www.betxepare.eus)). Lizeoko zuzendaria etorri zen herritarrei eskerrak ematera, izan ere, ordu-ra arte Igeldoko herritarrak izan ziren sagarrondo gehien erosi zituztenak, 56 sagarrondo, hain zuzen ere. Jende dexente elkartu ginen plazan jarritako ordurako; Igeldoko herritarrekin batera, eskolako irakasle batzuk ere bertan izan ziren eta trikiti doinuen artean sagarrondoak landatzeari ekin genion. Eskolako jolastokia eta baratza inguruan landatu ziren eskolak eta guraso elkarteak erositako sagarrondoak eta gaintzekoak jendeak etxe inguruan landatzeko eraman zituen. Ondoren, herritarrek ekarritako

mokadu goxoezin hamaiketako legea egin zen eta Lizeoko zuzendariak, eskerrak emanez, hitz batzuk esateko aprobeztatu zuen unea. Sagarrondoan kanpaina hedatzeko, Igeldon irudiak bildu zituzten, sare ezberdinetan zabaltzeko bideo bat prestatzeko; ikusi nahi izanez gero, honatx esteka: <https://youtu.be/Fv9Qu8iC4lg>



## Din-Dinen urteko batzarra

Urtero bezala, martxoaren 19an batzar orokorra egin zuen elkarteak. 50 pertsona bildu ziren eta, juntako kideen iritziz, 30 euroko bonoa izan zen jendearen erantzunaren arrazoia.

Balorazio positiboa egiten dute. Herritarrek parte-hartze handia izan zuten batzarrean, iritzia guztiakin partekatuz. Hainbat erabaki adostu ziren: elkartean aldaketa batzuk (adibidez, sarrerako giltza aldatuko da), Din-Dineko logoarekin telazko mantel/zapiak enkargatzeko aukera eta bazkide bakoitzak erostekoa, herriko ekintza kulturaletan erabiltzeko diru kopuru bat luzatzea (azken urtean bezala)... Hainbat bazkide herriko zenbait ekintzatan laguntzeko prest azaldu ziren eta, amaitzeko, zuzendaritza batzordea berritu egin zen.

## Arrakasta Errigoraren "uztaberri" kanpainak

Amaitu berri da Errigorak udaberrirako sustatu duen 'Uztaberria' kanpaina eta emaitzekin pozik da ekimen herritarra. 6.000 etxetan banatuko dituzte kanpaina honetako olio eta kontserbak. 86.500 litro eta 208.000 ontzi kontserba. Kontsumitzaile kopurua %20 igo da, olio eskaria %15 eta kontserbena %30. Olio apirilaren hasieran banatuko dute herriz herri eta kontserbak ekainaren hasieran.

Igeldon ere egon da produktuak eskatzeko aukera. Oliba-olioari dagokionez, 10 olio normal eta 11 ekologiko eskatu dira. Kontserba loteei dagokionez, 4 tomate ekologiko lote, 1 potxak, 2 orburuak, 2 pikillo piper ekologiko, 2 zainzuri ekologiko, 2 zainzuri eta krema ekologiko lote bat eskatu dira.

# ITSAS AURRETIK BALORAZIOA

Otsailaren 22an batzarra egin zuen Itsas Aurre elkarteak. Helburu nagusia herritarrei egungo egoeraren berri ematea izan zen. Bertan, desanexio-prozesuaren errepasso bat egin zen, azken urteetan emandako pausoak zeintzuk izan diren gogoratuz. Azken mugimenduei dagokienez, 2016.urtean izandako epaiak 2013. urteko dekretua baliogabetu zuen (Igeldo Udallerri izendatu zuen dekretua). Eta epai horri erantzunez, kasazio errekurtsioa sartu zen Madrilen. Orain epaitegiak baloratu behar duena zera da; dekretua baliogabetzeko erabili diren argudioak egokiak diren ala ez.

Bestalde, aipatutako ibilbide juridikoak sortutako gastuak izugarriak izan direla gogorazi zuten Itsas Aurreko kideek eta urteetan pixkanaka ordaintzen joan arren (asteroko zozketa,

boletoa, jaialdiak...), oraindik ordaintzeko gertzen den zorra 20.000 euro ingurukoa dela aipatu zuten. Azken urteetako ibilbidearen errepasso egin ostean, Itsas Aurrek egun duen egoeraz ere hitz egin zuten, momentu honetan zorrari aurre egitea izanik beraien betebeharrak garrantzitsuena eta, askotan, oso nekagarria.

Eskerrak eman nahi izan zizkieten pixkanaka beren ekarpena egiten duten herritar guztiei, beharrezkoa baita guztien laguntza. Hala ere, garbi adierazi zuten, nahiz eta egoerak desgaste ekonomiko eta ideologikoa bultzatu eta herrian giroa askotan itzali xamarra dagoela iruditu, Itsas Aurrek lanean jarraitzea beharrezkoa dela. Azkenik, herritarrei taldean parte hartzeko deia egin zien, ideia eta ekarpen berriak egiteko beharra azalduz.

## AURRERA BEGIRA ZER?

Batzarrean zenbait herritarrek aipatutakoa kontuan hartuz, aurrera begira Itsas Aurrek bete beharreko funtzioak zehaztu dituzte bertako kideek. Oraingoz, 3 funtzio nabarmendu dituzte: politikoa, ekonomikoa eta giro-sortzailea. Hala ere, hiru lan-eremu hauek martxan jartzeko herritar gehiagoren parte hartzea beharrezkoa dela azpimarratu dute, egun elkartzen direnen artean soilik ezingo bailukete guztia aurrera eramanez.

Horretaz gain, tartean behin (lau hilean behin izan daiteke), batzar ireki batzuk egitea planteatzen dute, herritarrengandik ideia berriak jasotzeko eta martxan dauden 3 lan-eremuetan lantzen ari dena azaltzeko. Beraz, herritarrei deialdia zabaltzen zaie hauetako eremu batean parte hartzeko gogoia izanez gero, Itsas Aurreko kideren batekin harremanetan jartzeko edo email honetara zuen interesa azaldu: [itsasaurre89@gmail.com](mailto:itsasaurre89@gmail.com)

## ITSASOREN EGOERAREN BALORAZIOA

Azken asteetan Itsasoko desanexioaren gaia komunikabideetan izan dela eta, Itsas Aurretik gaiaren gaineko balorazio bat egin nahi izan dute. Batetik, Itsasoko herritarrak zoriontzia, udallerri izateko aukera zabaldu zaielako, iazko urte amaieran onartu baitzuen Aldundiak Ezkio eta Itsaso banatzea. Bestetik, elkartasuna adierazi; azken berrien arabera, epaitegietan trabatzeko arriskua izan dezaketelako, Espainiako Gobernuak martxo hasieran, bertan behera utzi baitzuen Itsasoren desanexioa, 5000 biztanle behar dituela argudiatuz. Hala ere, gai honen inguruan Igeldotik azpimarratu eta salatu beharrezkoa, Gipuzkoako Aldundiak eta Donostiako Udalak urteetan izan duten jarrera lotsagarria da. Aldundiaren argudioen arabera, Itsasok, 2003.urteko dekretuari jarraiki, desanexioa lor-

tzeko aukera du, bertan Frankismo garaian elkarturiko udallerriak bereizteko salbuespena aipatzen delako. Itsas Aurreren ustetan, hori hala izanik ere, Ezkio eta Itsasoren artean izandako harreman on eta demokratikoa izan da desanexioaren arrazoi nagusia. Ezkioko udalak hasieratik onartu du modu demokratikoan itsasotarren iritzia kontuan hartzea eta tramitazioa aurrera eramatea. Igeldoren kasuan, ez da inoiz halako jarrerarik izan Donostiako udalaren aldetik eta hasieratik epaitegietan trabatzera bideratu zuten, gure iritzia kontuan hartu gabe. Aldundiaren aldetik ere, ez da inolako borondate politikorik adierazi igeldotarren eskaera aurrera eramateko; kontuan izanik, 2003.urteko dekretua, espreski, Igeldoren eskaerari aurka egiteko sortua izan zela.

# Baso-suteen kontrako plana

Pasa den urtarrilaren 18an Itsas aurre Kultur etxean Udal ordezkariak Igeldoko Baso-suteen Kontrako plana aurkeztu zuten.

Herri Kontseiluak eta herritarrek lagunduta, bideen egoera zehazteko, arrisku-guneen eta ur-tomen mapa osatu zen, babes zerbitzuek (suhiltzaileak, babes zibila...) informazio hori erabilgarri izan dezaten.

Gainera, suteraren baten aurrean babes zerbitzuek jarraitu beharreko protokoloak zehaztu ziren. Planaren baitan, Igeldo hiru zatitan banatuta geratzen da. Sutea pizten den zonaldearen arabera laguntza gune batzuk zehaztu dira, herritarrak biltzeko eta babes zerbitzuen koordinazioarako. Hala ere, herritarrentzako ebakuazio gune nagusia herriko frontoia izango da. Bestalde, sute baten aurrean egon daitezkeen bide-mozketak, zehaztutako hiru zonaldeen arabera egingo dira.

Planak Herri Kontseiluarekin koordinazioa aurreikusten du eta herritarrak informatzeko beharra. Herritarrak ohartarazteko sistema


batean ari dira lanean, Telegram bidez etxeetako wifiarekin erabilgarria izan dadin, koberturaren menpe egon beharrik gabe. Bitartean, alerta-sistema hauek daude erabilgarri.

-SMS mezuek:

[https://www.donostia.eus/info/udalinfo/servicios\\_sms.nsf](https://www.donostia.eus/info/udalinfo/servicios_sms.nsf)

-Twitter: @DssBabes Zibila

Plana zehaztasunez irakurri nahi duenak esku-ragarri izango du kopia bat Herri Kontseiluko bulegoan.



## Korrika badator

Badator 20. Korrika! Martxoak 30ean emango zaio hasiera Otxandiotik eta Iruñean amaituko da apirilaren 9an.

Aurten ere, hainbat eragileren laguntzarekin, igeldotarrok kilometro bat erosi dugu. Apirilaren 4an (asteartea) 22:30ean pasako da Donostiatik. Gure kilometroa non izango den oraindik zehaztu gabe dago baina emango dizuegu horren berri. Bertan elkartuko gara. Animatu!



## KZguneari agur!

KZguneak azken urteetan izandako erabilera baloratu da. Etxeetan interneta, taberna eta leku publikoetan WIFia... KZguneari erabilerarik ematen ez zaionez, ixtea erabaki da.

## San Isidro ate joka

Udaberrian sartu berri gara eta.... hasi beharko da Udaberri Jaia prestatzen, ezta?

Horretarako gonbidapena luzatzen dizuegu animatzen zaretenoi. Lehenengo bilera apirilaren 6an (osteguna) arratsaldeko zortzietan izango da, Itsas Aurre kultur etxean.

Ongi etorria izango zara!



## **Garrantzitsua da ikasketa esanguratsua izatea, zerbaitetarako ikasten dute haurrek**

*Jada 11 urte dira eskola berria sortu zela eta une aproposa iruditu zaigu, egoera probestuz, bertara bisita egin eta zuzendaritza taldeko Elo eta Lide elkarrizketatzeko. Seina urte daramatzate bertan eta hiruna zuzendaritza-taldean.*

*Idazkariak, zuzendariak eta ikasketa-buruak osatzen dute talde hori eta 4 urtean behin aldatzen da. Gaur egun, eskolan 70 ikasle daude; ikasturtea amaitzean, 7 ikasle joango dira Luberrira eta 3 berrik eman dute izena aurtengo matrikulazio kanpainan.*

## Nola lan egiten duzue?

Eskola txikien filosofia jarraitzen dugu, metodologia, adin aniztasuna... Herriarekin elkarlanean jarduten dugu. Eskola txiki ezberdinen artean badago harreman jarraikorra, adibidez, orain, Berrobi eta Adunako ikastoletako haurrak etorriko dira.

Bestalde, pedagogia aldetik, eskola txikien artean duela urteak berrikuntza pedagogiko bat eman zen eta eskola txikien foroan proiektua lan egitea erabaki zen. Hala ere, eskola txiki guztiek ez dute horrela lan egiten. Proiektua bide bat da eta kurrikulumarekin ere lotura egiten saiatzen gara. Garrantzitsuena da ikasketa esanguratsua izatea; zerbaitetarako ikasten dute haurrek, ikasketek zentzua izan behar dute. Proiektu guztiek xede bat eta amaiera bat dute. Azken hiruhilekoan gela bakoitzak erabakitzeko du zer proiektu landu, beste bi hiruhilekoetan eskola guztiak proiektu bera lantzen du.

Bestetik, garrantzia handia ematen diogu, ikasketa-maila mantendu eta hobetzeari, adibidez orain irakurketa lantzen ari gara. Gure lana etengabe aztertzen dugu, adibidez Luberrira joaten diren ikasleen kasuan, jarraipena egiten dugu urtean bi aldiz bilduz. Oro har, esan daiteke maila ona mantentzen dutela.

## Zer proiektu landu dituzue?

Aurten arkitektura, orain Igeldo lantzen ari gara. Aurreko urteetan, zinema, familia, irratia... horrelako gaiak landu ditugu.

## Eskola txiki gisa, zein balore lantzen dituzue? Erabakita datoz edo zuek aukeratzen dituzue?

Guk ditugu finkatuak. Elkarbizitzari garrantzia handia ematen diogu, gatazkak kudeatzen ikas-teari. Saiatzen gara jolas kooperatiboak lantzen, baita emozioen kudeaketa ere. Azken urteetan giroa lasaitu egin dela iruditzen zaigu, jolaslekuaren eraldaketak horretan lagundu du. Jolaslekuaren azterketa bat egin genuen eta futbolak garrantzia handia hartzen zuela ikusi, espazioa handiek eta mutilek bereganatzen zuten eta horrek gatazkak sortzen zituen. Horregatik, bestelako espazio batzuk sortzen ari gara, adibidez, futbol-zelaiaren atzeko belardian

sukaldetxo bat egin dugu; dena ikasleekin landu zen, behaketa lan bat egin zen zer nahi zuten aztertzeko, zer jolas nagusitzen zen ikusi eta zergatietan sakontzeko.

Futbol-egunak murriztu dira, debekuak ez baitute funtzionatzen. Espazioak zabaltzea erabaki dugu, jolas gehiago daude orain, gelaka klario-nak, sokak, gorpila... dituzte, mugitzen diren gauzak dira interesagarriak. Aurrera begira, rokodromo bat jartzeko asmoa ere badugu.

Euskara ere balore garrantzitsuena da; ume askok joera handia dute gaztelaniaz egiteko. Ez da eskolako kontua soilik; arazoaz jabetuta, Herri Kontseiluarekin hitz egin eta Euskara Batzordea sortu zen. Tailerrak egin dira estrategiak erakusteko eta formazioa ere jaso da. Ahozkotasanak garrantzia handia duela uste

dugu. Ondorioz, irakasle berritsuak izan behar garela ikasi dugu (gelatik kanpo gutxienez bi elkar-rizketa euskaraz egitea haurrekin) eta hilabetez irakasle guztiok hartzen dugu rol hori. Horrekin lotuta, euskara ikasgaia barruan euskara bultzatzeko eta gorputz adierazpena lantzeko an-tzerkia sartu dugu eskola ordutegien barruan; garrantzitsuena iruditu zaigu lotsak gainditzeko.

## Nolakoa da herriarekin duzuen lotura?

Guraso Elkarte eta Euskara Batzordearekin dugu harreman handiena. Herritarrak eskolara ekartzen saiatzen gara: Txapelakoak etorri dira, hainbat guraso, udalerritari buruz ere hitz egin da. Orain Igeldori buruz egiten ari garen lan-keta dela eta, ikasle batek orain herria gehiago bizi eta sentitzen duela aipatu digu.

## Zeintzuk dira eskola honen abantaila eta desabantailak?

Desabantailak bat, adin-talde batean irakasle bakarra izatea da, ideiak kontrastatzeko beste bat ez izatea. Bestetik, herri txikietako joera; onerako eta txarrerako, gauzak "puztu" egiten dira. Hala ere, gehiago dira abantailak. Inguruan dauden formazio-proposamen batzuk aprobetxatzen saiatzen gara; azken bi urteetan, Tabakalerako hainbat proiektutan parte hartu dugu. Geroz eta garbiago dugu eskola zubi bat dela, eskola mundura atera behar da.



## Eta haurrek zer diote?

Gelaz gela joan gara haurren iritzia entzuteko asmoz. Horrela, 3. zikloko ikasleek alderdi on asko ikusten dizkiote eskolari. Hasieran aspergarria dela dioten arren, segituan alderdi positiboak aipatzen dituzte: irakasteko modu ezberdinak, jolasleku handia, mahaietan batera daudela, jokoen bidez ikasten dutela, lasaia dela eta gelatik natura ikusten dutela... azkenik, denak elkar ezagutzen dutela gaineratzen dute.

4-5 urtekoen gela ere bisitatu dugu. Irakasleek azaltzen digute egunero lehen orduan bilera edo asanblada egiten dutela, bertan, etxeko gauzak kontatzen dituzte haurrek. Egunero ardura-dun ezberdin bat dute. Espazio ezberdinak dituzte gelan; plastilina, mahai-jolasak, idazteko txokoa, irakurtzeko txokoa, eraikuntza txokoa, margoketa txokoa... haurrek txokoetan libreki jolasten dute.

Haurren iritzia ere jaso nahi izan dugu; hauek dira aipatutako ideia garrantzitsuenak: eskola idazteko eta margotzeko tokia dela, gauzak ikasteko eta egiteko lekua, jolas berriak... irribarre bat ahoan, denek diote gustura etortzen direla.

Jolaslekura ere hurbildu gara eta 8 eta 9 urteko haurrekin hitz egin dugu. Azaldu digute ilusio handiz Igeldori buruzko proiektua egiten ari direla. Dendak, jostunak, jatetxeak... aztertzen ari dira. Jolaslekuarekin oso gustura daudela eta geletan adin ezberdinetako haurrak batera egoitea positiboa dela azpimarratzen dute.



# Guretzat hau da onena, haurren arteko harreman aberatsa, adin desberdinen arteko hartu-emana elkarri erakustea...

*Zaila egiten zaie esatea beste eskola batean hobeto ala okerrago egongo lirakekeen haurrak. Garbi dute hau dela onena. Gurasoen iritzia entzutea interesgarria delakoan, egun guraso elkarteak osatzen duten kideekin elkartu gara: Intza etxeberria, Birjina Zelarain eta Jexux Albenizekin.*

## Zer funtzio ditu Guraso Elkarteak?

Guraso elkarteak guraso guztien bozeramailea da; eskola-guraso, herria-guraso eta eskola-herriaren arteko interkomunikazioaren bideratzailea. Guraso, eskola eta umeekin zerikusia duten ekintza askoren antolatzailea (ekitaldiak, festak...). Bertako partaide gara eskolako guraso guztiak, hala ere, 2 urtean behin 3 bozeramailearen aukeraketa egiten da, presidentea, idazkaria eta diruzaina.

## Zer da eskola gurasoentzat?

Eskolari buruzko iritzia, oro har, oso ona da. Denok ezagutzen dugu elkar eta hori oso ona da, nahiz eta batzuetan, arazo txiki batzuk ere ekar ditzakeen.

Irakasle eta gurasoen arteko harremana oso estua da, etengabekoa, gure onurarako, noski. Eskolako proiektuetan parte hartzeko aukera dugu eta baita gure ideia edota pasarteak helarazteko ere.

## Nola ikusten dituzue haurrak eskolan?

Haurrak oso pozik ikusten ditugu. Egia esan, hau da ezagutu dutena eta zaila da esatea beste leku batean okerrago edo hobeto sentituko lirakekeen. Guretzako hau da onena, haurren arteko harreman aberatsa, adin desberdinen arteko

hartu emana, elkarri erakustea...

Eskola eta gero denok joaten gara plazara eta oso giro familiarrean egoten gara, denok ezagutzen eta zaintzen dugu elkar.

## Nola ikusten duzue eskola eta herriaren arteko lotura?

Igeldoko eskolak duen ezaugarriarik nagusiena da, herriko haurrak sortzea eta garatzea eta, nola ez, Igeldo bezalako herri batean naturarekiko sentsibilitate eta harremana izatea.

Herriarekiko harremana guraso askorentzat eskolan hasten da. Umeak eskolan hasi eta plazara joan eta ekin-tzetan parte hartzen hasten diren heinean hasten da herriarekiko lotura.

## Zeintzuk dira eskola txiki izatearen abantaila eta desabantailak?

Abantaila asko ditu baina baita desabantailak ere. Geletan haur gutxi dira eta horrek asko hobetzen du hezkuntzaren kalitatea. Irakaslearekiko harremana ere askoz estuagoa izaten da. Urte batean gazteagoekin elkartzen dira eta hurrengo urtean zaharragoekin. Hau ere oso aberatsa da, urte batean besteengandik ikasten dute eta hurrengoan irakatsi.

Irteerak egiterako garaian askoz errazagoa

izaten da talde txikiekin egitea eta, egia esan, Igeldoko eskolan irteera asko egiten dira, nahiz eta txikiak izan, umeei ilusio handia egiten die. Gainera, irteera asko eta asko herrian bertan egiten dira, herriarekiko eta naturarekiko harremana sendotuz.

Desabantailak ere baditu, urtero talde berri batera egokitzeko umek batzuei ezinezon txiki bat sortzen die. Onurak ere lortzen dira, gure umeei erraztasun handia dutelako egokitzeko baina, batzuetan, gaizki pasatzen dute. Talde txikiak izateak onurak ditu baina desabantailak ere bai, lagun multzo txikia denean eta baten batekin gaizki moldatzen zarenean, zaila izaten baita alternatibak aurkitzea.

“Geletan haur gutxi dira eta horrek asko hobetzen du hezkuntza-kalitatea. Irakaslearekiko harremana ere askoz estuagoa izaten da.”

## Nola ikusten duzue euskararen gaia?


Euskararen inguruan, guk uste baino arazo gehiago dago. Batez ere eskolako zaharrenak diren umeen artean gaztelania asko entzuten da, bai eskolatik kanpo eta baita eskola orduetan ere;

oso kezagarria da.

Hala ere, normalean plazan ibiltzen diren haurrek euskaraz jarduten dute, gaztelaniarako ohi-tura, herrian hainbeste txertatzen ez den jendeak izaten du normalean.







## AGENDA

<b>Apirilak 4</b>	Korrika txikia, 15:30ean, Igeldon zehar
<b>Apirilak 6</b>	- Korrika, 18:45ean, Donostian - Udaberri festako bilera, 20:00tan Kultur etxean
<b>Apirilak 21</b>	XL. Lapa saria, 22:00tan, Kultur etxean
<b>Apirilak 23</b>	San Pedro jaietako argazki-lehiaketako azken eguna
<b>Apirilak 28</b>	XL. Lapa saria, 22:00tan, Kultur etxean
<b>Maiatzak 5</b>	XL. Lapa saria, 22:00tan, Kultur etxean
<b>Maiatzak 12</b>	XL. Lapa saria, 22:00tan, Kultur etxean
<b>Maiatzak 15</b>	San Isidro eguna

## OHARRA

Iritzi-artikulua argitaratzeko ezinbestekoak dira: egilearen izen-abizenak, kontaktu-bide bat, testua euskarazkoa eta inolako asmo iraingarririk gabekoa izatea. Bestalde, Orri Informatiboak ez ditu bere gain hartzen atal honetan esaten direnak.

Inork iritzi-artikulu bat bidaltzeko interesik balu, hurrengo alea maiatza inguruan izango da ([igeldokoorria@gmail.com](mailto:igeldokoorria@gmail.com))



**IGELDOKO  
HERRI  
KONTSEILUA**

Itsas Aurre Kultur Etxea  
Igeldoko plaza 4, 20008 Igeldo  
Tfona. 943 313 030  
Emaila: [igeldokoorria@gmail.com](mailto:igeldokoorria@gmail.com)



Laguntzailea **Donostiako Udala**